

Krisia, prekaritatea, pobrezia, deslokalizazioa, kaleratzeak, privatizazioa, inbertsio-eza, lan-istripuak... Aiaraldean egoera guzti hauek, tamalez, normalizatu direla dirudi. 2008ko krisiaren ondorioak pairatzen gertatu zirenean, pandemia iritsi zenean, eta oraintsuago Europan piztu den gerrak, sistema kapitalista eta patriarkal baten erasoaldia oldartu besterik ez du egin. Krisi-egoera horiek aitzakiatzat hartuta, langile-klasea izaten ari da ondorioak gehien pairatzen ari dena, eta kolapsora eraman nahi gaituzten egoerak sufritzen jarraitzen dugu bizitzako esparru askotan.

Bizitza gero eta garestiago dago, gu gero eta pobreagoak gara eta, aldi berean, ez da kasualitatea egoera honetara eraman gaituztenek etekin milioidunak izaten jarraitzea. Krisi-egoeretan, putreak bailiran, langileez baliatzen dira, eta gogor estutzen gaituzte ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

Shock doktrina deitzen zaio horri. Gerraz, hornikuntza ezaz, pandemiak... betetzen dituzte komunikabide guztiak; eta, bitartean, Valvospainen, Tubacexen eta beste hainbat enpresetan kaleratzen gaituzte. Edo prekarizatzen gaituzte, Artiachen, Arabako Metalean, Madres Mercedariasen, zahar egoitzetan, Osakidetzan edota supermerkatuetan. Merkataritzan eta ostalaritzan oztupoak jarri, eta Laudioko hiltegia ixten digute, besteak beste.

Animoak eta langile elkartasuna bidali nahi dizkiegu une honetan borrokan dauden sektore guztiei: Osakidetza, garbiketa, Arabako Metala, erresidentziak, Apdema, hezkuntza... eta abar luze bat. Eta, batez ere, Artiacheko langileei, 138 egun baitaramate greban eta mobilizazioetan, eta baita Ibarako Madres Mercedarias egoitzako langileei ere, azken hilabeteetan prekaritatearen aurka egiten ari diren borrokagatik. Animo!!

Aiaraldean eta Euskal Herrian langile klaseak badaki zer den eta zenbat kostatzen duen eskubideak lortzea. Eta ez dugu onartuko aberats handiek eta hauek boterean dituzten konplizeek egoera aprobetxatzea dugun apurra kentzeko. Ez dugu pauso bat bera ere atzera emango, ez gara makurtuko!

Erakutsi dugu zein den bidea. Langile-klaseko sektore desberdinen arteko sareak ehuntzen jarraitu behar dugu, orain arte egin dugun bezala. Tokiko kontsumo jasangarria sustatzen jarraitu behar dugu, eraso guztiei batasunez erantzuten, indarkeria oro kalean salatzen eta egoera prekarizatu

eta zailenen aurrean mobilizatzen. Herri alternatiba eta dinamikak eraikitzen jarraitu behar dugu, Aiaraldean gure bizi proiektua duintasunez gauzatu ahal izateko.

Hala plazaratu genuen gure eskualdeko gehiengo zabal baten artean adostutako larrialdi-puntuetan. Orain, inoiz baino garrantzitsuagoa iruditzen zaigu hori aldarrikatzen jarraitzea, eta puntuetako bakoitza lortzeko bidean aurrera egitea. Krisi honek hemendik aurrerako norabidea markatuko du, eta irtenbideak bi aurpegi izan ditzake: prekarizazioa edo eskubideen konkista.

Guk argi daukagu gure eskualdean modu duinean ikasi, lan eta bizi nahi dugula. Herri biziak, solidarioak eta feministak nahi ditugu, non langile guztiek, datozen tokitik datozela, lekua izango duten, eta hori ezinezkoa izango da norabidea aldatzen ez badugu.

Biraka eta biraka dabilen gurpil honek ostalaritza eta merkataritza gehiago ixtera eta prekarizatzen garamatza, gure herrien sugarra itzaltzera, gure auzokideekin harreman gutxiago izatera, gazteen langabezia tasa altuagoetara, industriaren etorkizun zalantzarri batera, eta 10 baserriarretatik 8k gutxienerako soldat abaino gutxiago jasotzera asteen 52 ordu lan eginda.

Ezin delako lehen sektorea botata utzi, ezta beste edozein sektore ere, Baserriak bizirik! Herriak bizirik! SOS Aiaraldea!

Gelditu dezagun gurpila! Jarrai dezagun kaleak betetzen langileentzako etorkizun hobe baten alde!

Zenbat aldiz sinetsi ote dugu ezinezkoa zirudien horretan? Eta zenbat aldiz lortu dugu?

Gora Aiaraldeko langileria!

Gora langileon borroka!